



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, INGURUMENAREKIN LOTURIKO ZERGA NEURRIEN ETA BESTE ZERGA NEURRI BATZUEN FORU ARAU PROIEKTUAZ.

Bat etorri zedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak,
- b) onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Hori betez, kontsulta bat planteatzen da, ingurumenarekin loturiko zerga neurrien arau esparru berri bat ezarri nahi duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei eskatzeko beren iritzia azal dezatela.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute martxoaren 5era arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Klima aldaketa. Ingurumenaren jasangarritasuna. Detektaturiko beste arazo batzuk.
--------------------	---



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Funtsean, klima aldaketaren aurka borrokatzea eta geroko baliabideak ez jartzea arriskutan egungo baliabideen erabileragatik.</p> <p>Gainera, beste zerga neurri batzuk ere jasotzen dira.</p>
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Ingurumena zaintzea, babestea eta hobetzea eta garapen jasangarria sustatzea une orotan lehentasunezkoak izan behar dira Arabako Lurralde Historikoarentzat.</p>
HELBURUAK	<p>Funtsean, ingurumenarekin eta garapen jasangarriarekin loturiko jarduerak sustatzeko zerga neurriak hartzea da.</p> <p>Gainera, beste zerga neurri batzuk ere hartzen dira.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	<p>Egokiagotzat jotzen den alternatibarik ez dago.</p>